

Prentsa oharra

Nota de prensa



MAIATZAREN 6AN, ASTELEHENAREKIN, IREKIKO DA DONOSTIA KIROLA UDA-2024 KANPAINAKO IKASTAROETARAKO IZENA BEHIN-BEHINEKOZ EMATEKO EPEA

Donostia Kirolak prest du, udako kirol ekintzen kanpaina, «UDA-24». Eskaintza zabala eta askotarikoa da, eta hiriko 33 kirol entitaterekin batera egin da. Ikastaroak ekainaren 24an hasiko dira, eta irailaren 6an amaituko.

Iñaki Gabarain Kiroletako eta Bizitza Osasuntsurako zinegotziak adierazi duenez, "Donostian, udaro espero izaten da eskaintza honen iritsiera. Aire zabaleko kirol-ekintza ugari biltzen du –batez ere itsasokoak–, eta ekintza horiek, hain zuzen, erakartzen dute kanpainaren izen-emate guztien laurden bat, normala denez, uda garai erakargarria baita kirola egitera animatzen direnentzat".

Ikastaroak bi talde handitan banatuta daude: 16 urte arteko ikasleei zuzendutakoak eta gazte eta helduei zuzendutakoak.

Kanpaina honetan gehien eskatzen diren ekintzak kirol anitzekoak, surfa, igeriketa, tenisa eta piraguismoa dira. Espero izatekoa denez, itsasoko ekintzek (surfa, bodyboarda, SUPa, e.a.) estimazio handia izaten dute garai honetan.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Ikasleen artean, kirol anitzeko ekintzek lehen aukera izaten jarraitzen dute. Ikastaro horiek goiz oso bat edo are egun oso bat hartzen dute, eta kirol-mota desberdinak konbinatzen dituzte, bai eta hizkuntzen irakaskuntza edo beste ekintza osagarri batzuk ere. Iaz, 2023an, kanpainan parte hartu zuten ikasle guztien %30ek horrelako ekintzetan eman zuten izena.

Ekintza ezagun horietaz gain, UDA 2024 kanpainak 60 ekintza baino gehiago jarriko ditu aukeran, hala nola arraunketa, arku-tiroa, urpekaritza, bela, mendiko bizikleta, eskalada, skatea, esgrima, hipika, padela eta abar. Aurten, ikastaro batzuk lehen aldiz eskainiko dira: futboleia; pickleballa; Mundaizko ontziralekutik abiatuta, ibaian egitekoak diren kirol-ekintzei buruzko ikastaro bat, eta salbamendu eta sorospen ikastaroak, Zurriolan.

Izena emateko sistema.

Azken urteotan baliatu izan dugun izena emateko sistemari eutsiko diogu. Bi fasek osatzen dute. Lehenengo **fasean, izena behin-behinekoz ematen da:** maiatzaren 6tik 9ra (biak barne).

Fase honetan, pertsona bakoitzak behin-behineko izen-emate bakarra egin ahal izango du ikastaro berean, baina lau ikastarotan eman ahal izango du izena, gehienez. **Izen-emateak taldean ere egin ahal izango dira,** eta ikastaro bakoitzean, gehienez, lau pertsona onartuko dira. Behin-behineko izen-emate horiek, taldean egindakoez, zenbaki bakar batekin parte hartuko dute zozketan, eta emaitza bera izango da taldeko kide guztientzat.

Gomendatzen dugu behin-behineko izen-emate horiek webaren bidez egitea –www.donostiakirola.eus–, baina aurrez aurre ere egin ahal izango dira zerbitzu hori eskaintzen duten erakundeetan.

Behin-behineko izen-emate guztiek maiatzaren 10ean egingo den **zozketan parte hartuko dute,** eta plaza lortzen dutenek astebeteko epea izango dute ordainketa egin eta, horrela, izen-ematea berresteko.

Bigarren fasea maiatzaren 27an hasiko da, eta, egun horretatik aurrera, **izen-emateak zuzenean egin ahal izango dira plaza librearen bat duten ikastaroetan.** Zuzeneko izen-emate horiek online ere egin ahal izango dira, donostiakirola.eus webgunean, edo aurrez aurre, klub eta erakunde antolatzaileen bulegoetan.